

Marirengandik Mariarengana ematasunari kultua

JOSÉ HUARTE LERGA

Gure mitologiari begira, mito bat nabarmentzen da besteen artean, Mariren mitoa. Bere ezaugarriak orokorrean aztertuz, laster ikusten da oso ezaugarri zaharrak dituela, baita berriagoak ere. Orain ezaugarri horiek bereizten saiatuko gara zahartasunaren arabera, zaharragoak eta berriagoak. Mito bilakatuaren antza duela agertuko zaigu, iraupen handiko mitoa balitz bezala. Ezaugarri zaharrenek paleolito arokoak dirudite, erroak garai zaharretan sartzen dituztela. Berriagoek, berriz, neolito arokoak. Berrienak Erdi Arokoak direla uste dugu.

Gure kultura ez da inoiz kultura isolatua izan. Hori dela eta, garai berriagoetako euskal kultura ustezko mediterranean kokatzen dugu. Hala, neolito aroko mitoa mediterranean mitoeekin lotzen saiatuko gara eta hauek garai historikoetako ongi ezagututako mitoeekin. Kristautasunaren lehen mendeetan eta, batez ere, Teodosio ondoko garaietan erlijio gailurre-ra “Andreagoiko” bat nola altxatzen den ikusiko dugu. Azken finean hauxe dugu arazoa: Mari gure Ama zaharrendandik Maria Ama Birjinarengana hel daiteke etenik gabeko zubi baten gainetik?. Hipotesi honi eutsiz, oraingo Maria gurtzean orduko Andre Mari, gure lehenbiziko ama, gurtuko genuke eta, buztan buru, orduko Mari oraingo Ama Birjinaren aitzinirudi eta erroa izango litzateke.

MARIREN EZAUGARRI ZAHARRAK

Mariren ezaugarri zaharragoak erakustera goaz jarraian. Haiek Mariren mitoa paleolito arokoa dela susmatzera bultzatzen gaitu.

Mari emea da

Mari emea da beti. Momento guztietan ama bezala agertuko zaigu. Gero, maila berriago batean, baita emazte bezala ere. Beti Andrea. Garai baikoitzean emearen irudia eman diote. Erdi Aroko denboretan jantzi ederrak

daramatza, ilea ori eta luzea; kobazuloko ahoan bere ile luzea orrazten du, horretarako urrezko orratza erabiliz. Ikusten duten gizonak maitemindurik geratzen dira.

Ama-lerroko gizartearen kultura islatzen du?

Hala uste dugu. Mari emea bada, orduko gizartearen egitura sozio-politiko islatzen duela susma dezakegu, mito askotan gertatzen den bezala. Arrak guda eta ehizan ari diren bitartean, emeek kobazuloan irauten dute. Han taldearen kultura osoa iraganarazten du belaunaldiz belaunaldi. Han haurrak zaintzen ditu eta, batez ere, han mito gehienak sortzen, inguruan gertatzen dena kirian jartzeko eta fenomeno bakoitzari azalpena emateko. Kobazuloan, amaren sabelean bezala, emeak herriaren historia ehoten du. Han jaio edo haziko zen Mariren mitoa, Lehenbiziko Amaren mitoa. Ama-lerroko gizarteak biziaren hasieran Lehenbiziko Ama jarriko zuen. Eta mitotan gertatzen den bezala, oroimen historikoa galtzen den heinean, oroimen mitikoa bere gailurrera eramaten da. Irudiak eta ahalak atxikitzen zaizkio mitoari goi numena eratu arte. Paleolito aroko gizarteak ez du benetako hierarkiarik ezagutzen. Bere ekonomiak iraupena du azken helmuga bakarizat. Eta irauteko bide bakarra emakumeen emankortasuna da. Haien bete-beharra lehena eta garrantzizkoena da.

Hala eta guztiz ere ezin dezakegu ziurtatu ama-lerroko gizartearen aurrean gaudela, gaia oso konplexua delako.

Lehenbiziko ama?

Mari taldearen ama, lehenbiziko ama dela susmatzen dugu. Berak bere lehenetasuna alabei iragan die. Berak taldearen kiri soziala justifikatzen du. Bere sabeletik sortu ginen bezala bere sabelera itzuliko gara hil ondoren. Berak bere seme-alabak zaintzen ditu. Berak ematen dizkie elikatzeko behar duten animalia eta fruituak, bizia egiteko kobazulo idor eta beroak. Mito arruntak dira ama-lerroko gizartearen kulturetan.

Amandrea Lurra da?

Lehenbiziko Ama, Ama Lurraren, Ama Orokorren mailara gorai patzen da. Mitorik zaharrenak bezala geozentrikoa da ere Marirena. Goiko aldea Mariren alaba da: alabak Amandre Eguzkia eta Amandre Ilargia dira. Zer esanik ez, Eguzki eta Ilargi alabak, emeak dira, kulturaren ama-lerrotasuna erakutsiz behin eta berriz. Amandre Eguzkia amaren sabeletik, kobazulo urrun batetik irteten da egunero bere bidea egiteko, beste kobazulo batera itzuliz gaua emateko. Amandre Ilargia, berriz, iluntzean atera eta egunsentiarekin batera amarengana itzuli.

Kobazuloetako sakonean hodeiak egiten ditu, lainoak eta euriak. Hodei horietatik euri emankorrak eta ekaitz suntsigarriak sortzen dira, baina Mariren inguruan bakar bakarrik euri onak sortzen dira. Bera urruntzen delarik idortea gertatzen da. Marik bere hezetasuna ematen dio lurrari, eta hezetasun horretatik animaliek jaten eta ugaritzen dira, baita bilduko diren fruituak ere.

Mariri laguntzen diote zenbait animaliak lurraren indarren irudiak dirudite: hegaztiak, sugeak, txahala, zaldia eta abar.

Mariri Kultua. Ugalmena eta “Venus”ak

Denbora ilun haietan emeen ugalmena guztiz garrantzizkoa izaten da. Taldea txikia da beti. Guda eta ehizaren arriskuak handiak dira. Taldearen iraunpena emeen ugalmenetik eskegita dago. Marik ematen dio emeari ugalmen hori. Magiaren bidez Mariren nahia mugiarazten da. Aurignactar garaietik “Venus” ugariak agertzen dira. Eme irtentsuen irudiak. Bular eta sabelak borobilduak. Elementu majikoak direla dirudi. Haien bidez Amaren asmoa taldearen alde jarri nahi balute bezala horren garrantzizko gaian. Egia da, hala ere, irudi hauen funtzioa ezezaguna zaigula.

Paleolito aroko harpeetan bizi da

Mariren egoitza lurraren barnean da beti. Harpe eta leize sakonetatik irteten da lurreko azalera. Harpe horietan ikusi izan da, bai harpeko sakonean, bai harpeko ahoan. Beren ahotik ateratzen dira lainoak, hodeiak eta ekaitzak. Aipatzen diren harpeen artean hauexek dira garrantzizkoenak: Mugirokoak, Gutezbarri Ataunen, Txindokikoa, Murumendi Beasainen, Aitzkorriko Aketegi, Gaiztozulo Oñatin, Odebe Altsasun, Ambotokoa Abadinon, Kanpanzar Arrasaten, Balzola Diman, Atxuli Iurren, Supelaur Orozkon, Garbaro Markinan, Lezenobi Alzaien. Hauetatik batzuetan paleolito aroko aztarnak agertu dira.

Paleolito aroko gizakiak eraturako irudiak gure mitologian bizi dira oraintxe bertan. Irudien mundu berbera kobazulo berberetan, lehen eta orain. Euskal mitoei paleolito aroko argi eta itzalak islatzen dituzte, eta leku berberetan. Behin betiko argudioa ez bada hau, susmoa pizten digu gogoan dudarik gabe, Aita Barandiaranek dioenez.

Hilak eta Mari

Neskaxka bat, ortzadarra ikututa, Mari bilakatu zen.

Biziak Mariren seme alabak dira. Hilak Marirekin batzen dira. Gorpuak lurperatu ondoren lurrera jeisten dira, lur bilakatzen dira, Ama Lurretik aterata Ama Lurrera itzultzen dira. Beren gogoak, gorputik atera ondoren kobazuloetatik Amandre Lurrera doaz, han bere atsedena bilatuz. Mari izan zirenak Mari bilakatzen dira berriz, Mari bera dira. Hilek bere kultura dute, baita Neanderthaleko gizakien artean ere Behe Paleolito aroan; zer esanik ez, Goi Paleolitoan are gehiago.

Mariren izena

Aita Barandiaranek behin eta berriz dioenez, *Mari*-ren esanahia *‘Andrea’* da. Goazen orain oraindik argitaratu gabeko *Euskara eta amerindiar hizkuntzak* gure lanera. Han euskal lexikotik amerindiar lexikora zenbait hurbilketa proposatu dira. Michoacan-go hizkuntzan *Vari*, *‘La Señora’* agertzen da. Izen hori gure *Mari*-ra hurbildu dugu. Esanahi berbera izango lukete bi izenek eta, formaren aldetik, oso bide laburra dugu batetik bestera iragateko. Hasierako /m/ ez da aintzineuskararen soinua Michelenaren ustez, baina *izkizkizki* bezalako bikote ugari eta itxuraz zaharretan agertzen da. Agian bigarren mailako soinua zen /m/ hori, /ñ/, /ll/, /tx/, /tt/, /x/ eta gainerako sabaiakariak bezala. Honelako zerbait proposatuko genuke: ‘eMAn + ‘ugaRI’. Ja-

torrizko soinua ez bada, baliteke *bari* izatea antzinako garaietan eta, gero, garai historikoetan, Maria izenaren eraginez, Mari bilakatu.

Ikus ditzagun orain gure mitologian Mariri emandako izen osoak: Andre Mari Munoko Oiartzunen, Andre Mari Muiroko Aranon, Mari Munduko Ataunen, Mari Muruko Elduaienen, Mariarroka Olaztin, Mariurraka Abadimon, Mariburrika Garaien, Marije Kobako Markinan, Mariburute Udaben, Aldureko Mari Gorritin, Marie Labako Ispasterren, Marimur Leitzan, Aralarko Damea Amezketan, Putterriko Damea Arbizun, Ilunbetagaineako Dama Lakuntzan, Arroibeltzeko Andra Askainen, Arpeko Saindua Bidarraien, Damatxo Lizarragan, Txindokiko Marie eta Aralarko Damea Amezketan, Puiako Maia Oiartzunen, Muruko Damea Ataunen, Anbotoko Dama Zarautzen, Aketegiko Damea Zegaman, Amuteko Damie Azkoitian, Anbotoko Señora Aian, Anbotoko Sorgina Durangon, Aketegiko Sorgine Zegaman, Gaiztoa Oinatin, Sugarra, Iona Gorri Leskunen, Arpeko Saindua Bidarraien, Dama eta Hechicera Don Pedro Kontearen liburuan.

Mari Muruko eta Muruko Damea bikotea ekartzen dugu berriz, *Mari*-ren esanahia '*Dama*', '*Andrea*' dela azpimarratzeko. Marije Kobako, Txindokiko Marie bikoteak Mariren izena Ama Birjinaren izenarekin nahasi dela, agian aro berriagoetan, erakusten du. Baina beste deitura hauek: Anbotoko Sorgina, Gaiztoa, Sugarra ez diote dudari lekurik uzten: Maria, izatez Bikaina, Orban gabeko Ama da, bigarren mendetik honuntz, bederen. Eta tasun horiek gero ta nabarmenagoak izan dira Mariari kultuaren historian. Irudi ezezkorra ezin etorri Mariarengandik. Marik ez du zer ikusirik Mariarekin. Puiako Maia deiturak beste iturburu ezberdin bat izan dezake. Aro berriagoetan Mariri senarra eman diote, Maiu izenekoa hain zuzen. Mairuen eta beren mitologia dakargu burura izen horrek. Erdi Aroko mitologiaren jatorri hori baztertuko dugu ere berriegia delako.

Ondorio nabarmen bat susmora datorkigu: Mariren izena zaharra ote den gure artean. Baliteke izen hori euskaldunek Pirinioetara ekarri eta Behe Paleolito arotik guregan iraun.

Euskara eta amerindiar hizkuntzak aipatutako lanean, Michoacan-go hizkuntzan, *Vari* '*La Señora*' bada, *Varicha*, *Vari echa* '*los muertos*', '*los señores muertos*' dira eta *Varichao* '*el infierno*' (hilen aberria). Erroa berbera delarik, bikain agertzen da hiru konzeptuen arteko lotura, hilei eta Mariri buruz gorago esandakoa argituz.

EZAUGARRI BERRIAGOAK

Mariren mitoa bilakatzuz joan da denboran zehar. Gizartearen behar berriak agertuz joan diren heinean mitoa aldatuz joan da egoera berriak justifikatzeko eta fenomeno berriei nolabaiteko azalpena emateko. Jakina, gizarte berriak mito berriak eskatzen ditu.

Mari ezkondua

Antzinako Marik ez zuen senar beharrik izan Amandre Eguzki eta Amandre Ilargi alabak sortzeko. Orain, berriz, lagun bat jartzen zaio aldamenean, senar bezala. Senarraren izenak Maiu, Sugar eta Sugoi. Baita Culebro ere. Sugoi eta Sugar izenek eneolito arora eramaten gaituzte. Maiuk, berriz askoz berriagoa di-

rudi eta beretik Mariri Maia izendatzea letorke. Mariren ezkontza mediterrane- ar jainkosen ezkontzekin erkatzen badugu konzeptu bat bururatzen zaigu laster: sinkretismoa. Agertu zen behin Egipton heroi berri bat, Osiris, eta mitologoek Isis-ekin ezkondu zuten. Peloponeson, garaileen jainkoa, Zeus dirdiratsua, Argos-eko jainkosa handia zen Hera-rekin ezkondu zuten. Afrodita-ri Adonis eman zioten maitaletzat, eta abar eta abar. Horrela, mito zaharrek iraun zuten mito berriagoekin nahasiak eta, kasu batzuetan, Isis-en kasuan bezala, jainkosa zaharrak gurtuena izaten jarraiki zuen denbora luzez. Ereduek gure lurral- dera ekartzen baditugu, pentsa dezakegu hemen horrelako zerbait gertatu zela. Neolito aroko gizarteak, nondik hartu zuen ez dakigu, mito berriak sortu zituen eta zaharragoekin nahasi, sinkretismo modu bat sortuz. Antza denez, mito be- rriek IX mendera arte iraun zuten, “jentiltasun”-aren azken momentuetara arte.

Kondaira batzuek diotenez lurraldeko gazte batekin ezkondu zen Mari eta zazpi seme- alaba izan zituen berarekin.

Beste kondaira batean Mariren bi seme aipatzen dira, Atarrabi eta Mike- lats izenekoak. Hauetatik lehena gizartearen defendatzailea eta bigarrena ha- ren etsai amorratua.

Mariren irudiak

Andre bezala agertu da beti eta ondoren aipatuko ditugun irudietatik anitz erdi arokoak izan daitezke. Has gaitezen zaharragoetatik:

Zuhaitz baten antzaz ikusi dute batzuek.

Su eta garrak jaurtitzen dituen Andrea. Iluntze eta ekaitzetan ikusten da Eguzki Alabarengandik ongi berezia. Airean etzanda, goia zeharkatzen du.

Ahari baten gainean jarria ikusi dute leku batzuetan.

Ilargi Erdia bezala, sua dariola.

Andre Ederra ilargia buruaren gainean daramala.

Animalia batzuen irudipean agertu da askotan harpeetako sakonean: Aker, zaldi, bigantxa, bele, sai, zezen, ahari, suge... lurreko indarren irudipe- an, hitz batez errateko. Nahiz eta irudi askoetan agertu, beti emea da.

Suzko igitaia bezala ikusi dute zeruan.

Hodei zuria eta haize ufada bezala. Beste batzuek ortzadarra bezala: nes- ka bat, ortzadarra ikutu bezain laster, Mari bilakatu zen, errana dugunez.

Ederki jantzitako Andraaren irudiz agertu zaie askori. Harpeetako ahoan bere ile luze eta horia orraztuz ikusi dute behin baino gehiagotan. Batek es- kuetan urrezko gaztelu bat zeramala ikusi zuen eta Santa Barbararen irudi ezaguna datorkigu gogora. Gogora dezagun Santa Barbara ekaitzen aurkako babeslea dela gure artean.

Amezketan lau zaldik eramandako gurdi baten gainean jarria ikusi dute zerua zeharkatuz.

Sorginen irudia hartu du batzuetan, isatsa eta guzti. Batek dioenez, bur- nizko kateak herrestan daramatza, iskanbila handia sortuz.

Azken denboretako kondairen arabera, Mari ederrak ahuntz edo hegaz- tien oinak eta anakak erakutsi ditu.

Mari eta aberastasunak

Zaldia, behia, aharia, akerra... abeltzainen aberastasuna diren animaliak Mariren inguruan agertzen dira. Marik dakartza euri emankorrak. Askoz ge-

roago Mariren orratza urrezkoa da. Eskuetan daraman gaztelua metale berberakoa. Mariren sukaldean altzairuak urrezkoak. Noizbehinka urrezko jarlekuan jarria ikusi dute. Urrezko haria hariltzen du Marik bere egoitzetan.

Mariren urrea, benetako urre izan arren, egur usteldu bilakatzen da harpeetatik atera eta gero. Mariren aberastasunak lapurtzen dizkionari mota guztietako gaitzak datozkio. Gogora dezagun Hades, behe erresumako jainkoa, Pluto-ren izenarekin, alegia, aberastasunen jabea den jainkoaren izenarekin agertzen dela askotan.

Morroi ugari ditu Marik, baita neska bahitu batzuk. Haietatik batek Mari du izena. Markinako neska bat Marik bahitu zuen. Bere harpean heziketa bikaina eman zion eta etxera bidaltzean eskukada urre oparitu zion.

Mariri kultua. “Venus” berriagoak

Orojakilea denez, Marirengana doaz zintzoak zer edo zer jakin nahian. Berak erantzun zehatzak ematen dizkie. Zintzoen sinismena saritzen du eta bere izena hiru aldiz erraten dionari buruaren gainean agertzen zaio. Opariren bat egiten dionak ez du bere gariaren gainean kazkabarrik erortzen ikusiko. Berdin otoitz egiten dionak. Egin dakioken oparirik preziatuena aharia da.

Marik pentzeak zaintzen ditu, baita hondatzen ere, haserre badago. Bere kultua gorde eta zabaldu behar da. Hori da biderik zuzenena aberastasunak lortzeko. Hala ere, ekaitza begien aurrean badago, magiaren bidez eragin daiteke Mariren ekintzan: badira formulak ekaitzak uxatzeko edo, behintzat, desbideratzeko.

Mariri hikaz mintzatu behar. Ikustera joaten denak sartzean aurreraka eta ateratzean atzeraka ibili behar du, beti Mari aurrean izanez. Mariren harpean behin sartuz gero ezin inor eseri, zutik iraun behar beti harpeko barnean egon bitartean. Protokolo ezaguna da leku eta garai guztietan.

Neolito aroko azken denboretan, K.a VII-VI. milurtekoetan, Anatoliako Çatal Hüyük-eko aztarnategian emeen iruditxoak ageri dira. Forma borobilduen emakumeak dira, lurraren gainean eseriak eta besoetan bi katuki daramatatela. Anatoliako Hacilar-eko aztarnategian “venus”ak zutik daude, edota katukien gainean jarriak, besoetan seme edo alaba bat edukiz. Bai Çatal Hüyük-en, bai Hacilar-en iruditxo hauen materiala lur egosia da, gero margoz ornitua. Garai horretatik, Balkaniar Penintsulatik irudi berezi bat heldu zaigu. Emakume baten iruditxo da, baina emakumea jarleku batean eseria, semea edo alaba besoetan daramala. Lehena da, oraingoz, jainkosa tronoratuaren artean eta irudiak arrakastarik handiena izango du gero: Isis-Horus, Demeter-Kora eta, batez ere, Ama Birjina eta Jesusen irudiak.

Mari eta animaliak

Paleolito aroko aztarnategietan ez dira animaliak emakumeen irudietako inguruan agertzen, nahiz eta harpeetan askotan irudikatuak izan; bai, ordea, neolito aroko irudietako inguruan, katukiak batez ere. Mariren inguruan belea, sugea eta saia ikusi dituzte maiz. Lehoi eta panterak Asia Hurbileko jainkosekin agertu dira, baita hegaztiak eta sugeak ere. Gogora ditzagun Kretako “Txorien eta Sugeen jainkosak”, Moisesek jasotako brontzezko sugea, Atenearen untza zuria, Dianaren orein emea, Artemis-en basa-animaliak... Ez du-

gu uste animalia guzti hauek abeltzantzarekin zer ikusi handirik dutenik eta Ama Lurraren indarren irudiak izan daitezke. Munduan zeharreko erlijioetan badirudi txoriek giza-espirituarekin zer ikusi zuzena dutela eta sugeek hilezintasun eta berpizkundearen ideiarekin.

Baina abeltzantzako animaliak Marigandik hurbil ikusi dira askotan, akerra, aharia, zaldi zuria eta txahal gorria batez ere. Gauza bera Mediterraneoko kulturaren: akerrak Astarte-ren bi aldamenetan irudikatu zituzten Ugarit-en, zaldiak Poseidon-en abereak dira, Demeter behor bilakatu zen, zezena ongi ezaguna da mediterranear kulturaren aro guztietan, Kretan batez ere, eta abar.

Mari eta abeltzantza

Aker eta ahuntza, zezen eta behia, zaldi eta behorra, ahari eta ardia abeltzantzako abereak dira. Marik abereen ugalmena zaintzen du, taldeko emazteen ugalmena zaintzen duen bezala.

Mari eta nekazaritza

Mari lur ereinduen ugalmenaren babeslea da ere. Euria guztiz beharrezkoa da lurra ereiteko orduan, beharrezkoa lurra prestatzeko ere. Erein ondoren guztiz beharrezkoa bihiak sustraiak bota ditzan eta beharrezkoa landarea haz dadin. Marik hodeiak eta euri mesedegarriak ekartzen ditu, lurraren ugalmena faboratuz.

Garia biltzeko orduan ekaitzek urte osoko lana onda dezakete; kazkabarrrak uzta osoa kaltetu. Euriak dakartzan bezala, Marik kazkabarra dakar ere herriak zigortzeko asmoz. Horregatik herriaren alde izatea guztiz garrantzizkoa da. Mari bizi den herri eta lurraldeetan euriak ugariak eta onak dira. Baina Marik egoitzaz aldatzen du erraz eta Mari urruntzearekin batera, ekaitz kaltegarriak agertzen dira, baita lehortea ere.

Mediterranear kultura. Kreta, kulturen arteko zubia

Neolito aroko azken milurtekoetan, kultura aberats bat loratu zen Mediterranearen itsasoaren inguruan, Algarbe-tik Tigris ibaiaraino: Mediterranear kultura, guztiz dirdiratsua Ekialdean, askoz apalagoa Mendebaldean. Kultura hori laster desagertu bazen ere Egipto eta Sumerretik, K.a. III milurtekoan, Kretan II milurtekoaren erdira arte iraun zuen eta are gehiago lurralde urrunetan, adibidez Euskal Herriko mendi eta haran ezkutatueta. Mediterranear kulturaren golkoan entzun zitezkeen hizkuntzetan euskararen aztarnak aurki daitezke leku bat baino gehiagotan. Leku izenak eta mitoak susmo honen lekuko dira, dirudienez.

Lainoz inguratutako kultura honetatik, izaki aunitz sortzen dira eta, haien artean interesgarrienak, numen emeak edo jainkosak.

Kretako historiaren ezagutza sakon batek Mediterranear kulturaren eza-gupenari asko lagun diezaioke. Hango erlijioari buruzko berriek Paleolito Aroko amaiera arte eramaten gaituzte. Garai horretan Kretako kulturak Egeoko eta Anatoliako kulturaren antz nabarmena erakusten du, kultura bakarra balitz bezala. Hilobietan harrizko irudi eme biluzi eta aldaka zabalekoak agertu dira; haurdun emakumeak dira, erdituz, haurrak besoetan daramatzatela, emankortasunari, Ama Lurrari, Naturaren Amandreari kultua. Neolito

aroan emakumeek gona luzea daramate, beso jasoak, bularra biluzik. Kretako kultuguneak leze eta harpeak ziren hasieran (Amnisio-koa, Dikté eta Idako mendikoak,), gero mendietako gailurrak eta geroago harrizko santutegiak eraiki zituzten (Petsofá, Yuktas, Maza). Kretako emakumeek, zenbait iturrietako ura edanez, emankortasuna lortzen zuten.

Numen guztiak emeak ziren antzinako garaietan. Lehenbiziko Amandrea ugalmenaren emalea da, mendien eta landareen ama. Zuhaitz baten pean irudikatzen da. Bere apezak emakumeak ziren. Uharteko Ekialdean Britomartis, 'Birjina gozoa', izendatzen zuten, eta Mendebaldean Diktina, 'Dikté mendikoak'. Honek orein emea zuen animalia bezala. Eman zioten senarra zezenaren irudian irudikatu zuten. Zezena emankortasun eta indarraren sinboloa izan zitekeen. Harriari ere eman zioten kultua, eta zuhaitzari. Oroi gaitzen Mariren irudietako bat zuhaitza dela. Hilen erresuma Mendebaldean zegoen, Piriniotako mendietan, eguzkia sartzen den aldean.

Ikus ditzagun orain banaka neolito aroko denbora ilunetatik garai historikoetara heldutako numen emeak.

MEDITERRANEOKO AMA HANDIAK

Isis (Ast)

Lehenbiziko ama, Egiptoko Amandrerik gurtuena. Emakume eta beren esperientziaren babeslea. Amandre Lurrak bezala, bere senarra zen Osiris berpiztu zuen. Horus semeari bularra emanez irudikatu zen, bere jarlekuan eserita. Greziarrek emandako izen honek euskal *iz izenarekin, jatorrizko urarekin, zer ikusirik ez ote duen galdetzen diogu geure buruari, Nilo ibaiarekin oso harreman estuak dituelako. Jai batzuetan bere sinboloa ur-ontzi bat da.

Rea-Gea

Kretatik Amandre bat datorkigu, Rea. Greziar mitologoek Gearekin berdindu zuten. Edozein kasutan Amandre Lurra guztiz garrantzizkoa, nahiz eta bakarra ez izan. Mitologiaren arabera Kronos-en emaztea zen eta Zeus semea ezkutatu, zaindu eta salbatu zuen aitaren ahotik.

Artemis

Kretatik bertatik beste jainkosa bat heldu zaigu, Artemis, birjina garai historikoetan, baina ama askoz lehenago. Erromatarrek Diana jainkosarekin identifikatu zuten. Bera da basa-munduko babeslea. Bere animaliak basa-animaliak dira. Artemis ez zen Olinpoko gailurrera heldu, beti bigarren mailako jainkosa izan zen. Erditzeen babeslea da, baina baita artoarena, gariarena ere, eta hortik bere izena. Gogora dezagun gure hizkuntzan, Ameriketatik artoa heldu baino lehen, *arto* izenak beste esanahia zuela, 'garia' edo beste bihi bat. Hitz batez, Amandre Lurra zen, lur eta emakumeen emankortasunaren ekarlea. Efeso-ko Amandrea zen, baina han Asia Hurbileko Amandreen aiurria zuen.

Hera-Ilitia-Maya

Indoeuropar hordak Argos-era heldu zirenean Zeus dirdiratsua jainko bakarra zuten, ezkongai, paregabea. Baina Argos-eko Amandrea, Hera, horren

garrantzizkoa zenez, ezin izan zuten baztertu garaileek eta ikusten zuten bide bakarra aukeratu, sinkretismoa. Zeus gorengo mailan utziz, Amandrearen ahala onartu zuten, Zeus-ekin ezkondu eta, ezkonkideak bezala, Olinpoko gailurrera eramán. Hera Amandrea ezkondua izan da beti, baina baita neska eta alargun bezala gurtua izan da ere. Emankortasunaren emalea da, bai lurrarentzat, bai emakumeentzat. Ilargiarekin zer ikusia du. Bere irudia garaia eta maiestatez betea. Bere izenak *her/har* (euskal “harria”) erroarekin zer ikusirik izango du?.

Ilitia (euskal “hiri”, “hirizaina”?, ekialdeko semitarra “uli”, –‘*jainkosak zaindu?*–) Kretako Amandrea, erditzeen babeslea, Hera-ren alaba. Ahaidetasun honetan sinkretismoaren aztarnak ikusi beharko genituzke, baina Hera indoeuropar aurreko Amandrea denez eta Ilitia ere bai, sinkretismo hori oso zaharra izango zen. Hera Handiak Ilitiaren kultua har zezakeen. Geroko mitologiak Herari Ilitia izengoitia eman zioten. Ilitia Kretako Amnisio-ko leizean gurtua zen. Kontuan hartzekoa da Ilitiaren semea suge salbatzaile bilakatu zela. Gogora dezagun Moisesen suge salbatzailea. Neolito aroko mito ezaguna dugu hemen.

Maya (euskal *Mari?*) oso Amandre iluna da, baina jakin badakigu Hermes-en ama dela. Hemen ere sinkretismo oso zaharraren aztarnak ditugu, Hermes Greziako jainkorik zaharrenetariko bat baita. Kretan Ilitia Maya-rekin identifikatu zuten gero.

Atenea

Amandre guztiz garrantzizkoa. Indoeuropar garaileek Zeus-en burutik aterarazi zuten eta aiurri gerlosa atxiki, beste Amandreekin gertatu zen bezala. Baina lehenbiziko Atenea (euskal *athe?*) guztiz ezberdina zen. Bazuen zer ikusirik jatorrizko urarekin, Tritogenia izendatu zutelako. Gogora ditzagun Anfitrite eta Triton itsasoko erdi jainkoak, baita Triton ibaia eta Tritonis lakua. Izen guzti hauek *tur erroatik sortu dira, dirudienez (ez du zer ikusirik izango euskal *i tur r i*-arekin?). Grezia osoko Amandrerik garrantzizkoena zen Homeros-en garaian. Birjina izan zen beti eta horregatik Partenon-en gurtua.

Hekate

Hekate ugaldunen Amandrea zen, mota guztietako ondasunen emalea. Behe munduko Amandrea zenez, nekazaritzaren babeslea zen eta ilargiarekin zer ikusi nabarmena zuen.

Afrodita

Erromatarrek Venus izendatu zuten edo, behintzat, Amandre hori Afroditarekin erlazionatzen zuten. Afrodita Asia Hurbiletik etorri eta Cypre-n gurtua izan zen indoeuroparrak heldu baino lehen. Hemendik bere abizena: Cipros. Isis-ek bezala, bere maitalea Adonis berpiztu zuen eta berarekin batera munduko bizia, landaretzaren bizia udaberri bakoitzean. Ama Lurra zen, dirudienez, Eros-en ama izan baino lehen, Eros oso numen kosmogoniko zaharra baitzen. Adonis Asia Hurbileko heroia zen. Oroitu *adar* semitarra, eta *Adonai* aramearra. Italiar penintsulan Venus pentze ereinduen itxura onen erantzulea zen, baita marinelen babeslea ere.

Afroditarekin harremanetan Karites edo Gratiae zeuden. Dirudienez oso numen zaharrak ziren, landaretzaren Amandreak.

Demeter

Poseidonek, zaldi bilakatuta, Demeter behor bilakatua estali zuen. Demeter ugalmenaren Amandre bezala gurtu zen antzinako garaietan eta zituen emalea zen. Erroman Ceres izenez gurtua. Kora alaba besoetan zeramala eta bere jarlekuan jarria irudikatu zen. Irudi honekin gurtu zuten Italian Ama Birjina balitz bezala. Demeter-ek zer ikusi handia zuen Eleuxis-ko misterioetan Lehenbiziko Amandre bezala. Misterio horietan antzinako erlijioaren aztarna zahar ugari agertzen dira.

Kora

Ez ote du gure “gora”, *‘garaia’*-rekin zer ikusirik izango? Hilan jainkosa da eta horregatik ugalmenaren Amandrea, Ama Demeter bezala. Edertasun handiko andrea da, aberastasun guztien jabea den Pluto-ren emaztea. Bai Demeter bai Kora Sizilian gurtu zituzten bereziki. Korak beste izen bat zuen, Persefone (euskal *Behere*-rekin zer ikusirik ote?) eta hortik latinerako izena, Proserpina, ugaritasunaren adarrekoa.

Ninhursag

Eridu-ko Ninmah-a, Hagash-eko Baba edo Baü-a, Umma-ko Nidaba. Bere lehen izena Ki, *‘lurra’* izango zen. Ninttu, *‘sortzen duen andrea’* erraten zioten ere. Erregetasunez inguratutako Andrea, Ama Lur Andrea, bizi diren guztien Ama, sumeriar herriak bereziki gurtua eta, baliteke, aitzinsumeriarraren Amandre handia, Eridu-n gurtua..

Inanna-Ishtar

Sumer-eko Inanna, Agade-ko Ishtar. Sumer-etik Babiloniara iragan zen eta handik Asur, Mari, Mitanni, Hatti eta feniziar hirietara, azken hauetara Astarte bezala. Ama Lurraren hipostasia, landare eta animalien sortzapen indarra. Amandrea da eta Amandre bezala haur bati bularra ematen, jarleku batean eserita, irudikatua izan da noiz behinka. Babilonian eta Asur-en aiurri bi-koitza hartu zuen eta baita guda jainkosa bezala ere gurtu zuten, Atenea-rekin gertatu zen bezala. Batzuetan lehoi baten gainean jarria irudikatu zen, Mari ahari baten gainean jarria ikusi duten bezala.

Sauska-Ishtar

Mitanni-n ere gurtua. Sexualtasun eta gerraren jainkosa. Amandrerik gurtuena Mitanni-n.

Ba’alat Gubal-Ishtar

Biblos-en gurtua. Isis-ekin ere identifikatu zuten. Emankortasunaren Amandrea.

Ashtar-Ashtarte

Feniziar hirietan kultu berezia zuen. Afroditarekin identifikatu zuten. Emankortasunaren Amandrea.

Tanit-Astarte-Juno

Oso toki berezia zuen Kartagoko jainko eta jainkosen artean. Bere gurtugunea oso aberatsa zen. Feniziar hirietan Astarte zena, bazen Tanit Karta-

gon. Dea Caelestis, emankortasunaren babeslea zen eta bere sinboloa ilargia. Kartago suntsitu zutenean, Jupiter-en emaztea zen Junok Tanit-en lekua hartu zuen. Tanit birjina iraun zuen beti.

Cibeles

Frigiatarra jatorriz, bere kultoa Mediterraneoan zehar hedatu zen Eszianek Erroman sartu zuenetik. Amandrea da, Ama Lurra, Lehenbiziko Ama bai gizakientzat, bai bizi den izaki guztientzat. Cibeles-engan emetasunaren ahala gurtu zen nonahi. Bazuen zer ikusi handi eta zuzena Asia Hurbileko Amandre guztiekin. Amandre honen erlijiora sartzeko bataioa odoletan, odollezko bainu batean egiten zen. Horrela bataiatuak beste bizi berrira jaitzen ziren.

Ez dirudi ausartegia denik pensatzea Amandre hauek guztiak iturburu berberaren irudi ezberdinak direla: Ama Orokorra, Ama Lur Andrea, bizi denaren Lehenbiziko Ama, zeru eta lurreko indarren jabea, emankortasun eta ugaldaren emalea, bizien eta hilen Ama Andrea. Izen ezberdin asko baina ideia eta sentikizun bakarra. Batzuetan ama-lerroko aztarnak agertzen direla dirudi, baina ezin dezakegu ziurtatu. Antzinako kulturaren aztarnak dira, gero, sinkretismoaren bidez, semitar eta indoeuropar mitoeekin guztiz nahasiak. Amandre hauek paleolito aroko ideia eta sentikizun zaharrak berriagoekin eta oraintxe bertakoekin lotzen dituzte.

AMA ANDREEN OINORDEKOA: MARIA

Lehen aldiz Idazki Santuetan, eme baten irudia, Amandre paganoen guztiz antzekoa aipatzen da: “Ikusgarri handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia eta ilargia oinpeko, eta hamabi izarreko koroa buruan. Eta haurdun bait zegoen, garraxika hasi zen haurgintza minetan eta estualdiz” (Ap. 12.1,2). Mariarekin identifikatua izan da.

Maria Theotokos edo Jainkoren Ama da (Efeso-ko kontzilioa, herriaren txaloen artean, 431). Nahiz eta ama izan, birjina izan da bere semea sortzean Espiritu Santuaren eraginez (Nizea-Konstantinopolis-eko sinboloa). Erditu ondoren, birjina iraun zuen, Hiponako Agustinek, Jeronimok eta beste askok diotenez. Hala izanez Maria birjina zen beti, erditu baino lehen, erditzean eta erditu ondoren (Letran-go Kontzilioa, 469, Paulo IV Cum quorundam hominum, 1555). Amaren sabelean orbanik gabekoa sortu zen (Pio IX, Ineffabilis Deus 1854). Ez zen gainerako biziak bezala hil, lotan gora jaso zen, gorputza eta arima (Pio XII Munificentissimus Deus 1950). Elizaren ama da, Elizaren arartekoa (Pablo VI, Vaticano-ko II kontzilioa 1964). Eta gainera birjinen Birjina; jainkozko donuaren Ama oso garbia, zikinik gabekoa, santua, maitagarria eta miresgarria, aholku onekoa; birjina oso zuhurra, gurtugarria, goragarria, ahaltsua, bihozbera, zintzoa; santutasunaren eredia; jakituriaren egoitza; gure alaitasunaren zioa; Espiritu Santuaren tenploa; herrien ohorea; jainkoari emanaldiaren eredia; arrosa aukeratua, Dabiden dorrea bezain indartsua; bolizko dorrea bezain ederra; urrezko etxea; elkertasun berriaren kutxa; goiko atea; goizeko izarra; erien osasuna; pekatarien babesa; nahigabetuen kontsolatzailea; kristauen laguntza; aingeruen erregina, patriarken, profeten, apostoluen, martirien erregina, beren sinismenean bizi direnen

erregina, birjinen, santu guztien erregina, errosario txit santuaren erregina, familiaren, bakearen erregina. Honaino elizak aitortutako sinismena. Baina herri kristaua askoz haratago joan da:

Maria herri arruntarentzat erlijioaren alde gizakorra da, biziaren alaitasuna, guztion ama, goiko ate bakarra. Bera da, baita pekatariarentzat ere, bihozbera, mater misericordiae, spes unica, bere magalean herri osoa hartzen duena:

“Pecadores somos de quien eres madre. Ea, pues, Señora, no nos desampares”,

Eslabako aldean kantatzen dugun bezala.

Bere bihozberatasunean Jainkoak baino ahal handiagoa erakusten du pekatarien alde, eta epaikariaren beso zigorlea geldiarazten du, La Salette-ko irudi ospetsuan bezala:

“Si por nuestras culpas penas a millares merecemos todos, tu favor nos salve”, ere Eslaban. “Omnipotentia supplicans” denez bere ahalak ez du mugarik ezagutzen. “...ezteiak ziren Galileako Kanan...Ardoa ahitu zen, eta honela esan zion Jesusi bere amak: ez daukate ardorik. Eta Jesusek erantzun: Eta guri zer axola, emakume? (Zer dut zurekin, emakume?, Jerusalemeko Bibliak itzultzen duenez). Nire ordua ez da oraindik etorri. Orduan amak morroiei: egizue Berak esaten dizuena”. Ondoren Jesusek ura ardo on bihurtu zuen.

Bere bihotzberak eramana, lurrera jeisten da batzuetan herririk arrunte-nari aholku eta mezuak uztera eta bere faboreak ematera, Lourdes, Fatiman eta beste kontaezinezko lekuetan bezala.

Zonalde batzuetan erlijioaren ardatz nagusia, bakarra ez bada, Maria da, El Rocio-ko erromerian urtez urte ikus dezakegun bezala.

Mariaren babesak salba gaitzake, nahiz eta pekatari amorratuak izan:

“Tu escapulario, oh Madre de amor, es signo cierto de salvación. Siempre en mi pecho lo llevaré, con él al cielo yo subiré”,

Eslaban ere.

Elizak Maria Elizaren ama izendatu badu, herriak gizaki guztien ama egin du, bizi diren eta hil direnen Ama. Hilena izan da gure artean erlijioaren ardatz nagusia eta ardatz hori lurretik Mariarengana doa zuzen. Hori dela eta errosariaren hilabeteari, arimen hilabetea darraio. Mariak bere babesaren purgatorio-ko arimenganaino ere hedatzen du. Bihozberaz, arimak handik goiko aberrira daramatza:

“A la Virgen del Carmen quiero y adoro porque saca las almas del purgatorio”, Andaluzian kantatzen duten bezala.

Emakumeek eta lur ereinduek beren emankortasuna Mariari zor diote. Lorerik ederrena denez loraila edo maiatzeko hilabetea egokitu diote:

“Ea, extiende ya una dulce mirada a los campos que sólo con ella fructificarán”,

Eslaban kantatua.

Hau guztia aipatu ondoren ez da inor harrituko erraten badugu Maria, Jesus bere semea baino, askoz gurtuagoa izan dela eta izaten dela oraintxe bertan. Bata eta bestearen garrantzi zehatza ezagutzeko herriko erlijiotasunean, saintutegien titulareak ezagutzea besterik ez dago: Bukaezinezko zerrenda ez emateko ez gara Nafarroatik higituko: Orreaga, Muskilda, Idoia, Uxue, Puy, Kodes, El Romero, Iruñeko eta Tuterako Katedralak, Sangotzako Santa Maria, Leyre, La Oliva, Fitero, Iratxe, Irantzu....Nafarroako herrietako jaien artean Abuztuko Jasokundea nagusi da, dudarik gabe.

Maria Idazki Santuetan

Itun zaharreko liburuetan ez da Mariaren aipamen zehatzik egiten. Are gehiago, izena bera ere ez da behin ere agertzen, Moisesen arrebarena kenduz gero, oker ez banago.

Lehen aipamena Mateoren ebangelioan dago, I.16,18,20,25: “Jakobek , berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra eta Mariarengandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana... Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez...Dabiden seme Jose: ez izan beldurrik Maria, zure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra Espiritu Santuarengandik bait dator...Eta elkarrekin harremanik izan gabe, Mariak semea izan zuen”; II,11,13,14,20,21: “Eta etxean sarturik, haurra aurkitu zuten, Maria bere amarekin...hartu haurra eta ama eta zoaz ihes Ejiptora...hartu zituen haurra eta ama gauzez, eta Ejiptora joan zen...hartu haurra eta ama eta zoaz Israelgo lurraldera...hartu zituen haurra eta ama eta Israelgo lurraldera itzuli zen”; XII.46,47,48: “...Haren ama eta senideak azaldu ziren kanpoan...Hor dituzu zeure ama eta senideak...Nor da nire ama eta nortzuk dira nire senideak?...Horra nire ama eta nire senideak...Aitaren nahia egiten duena, hura da nire anaia, eta arreba, eta ama” (Ikusi Markos III.31,32,33,34,35 eta Lukas VIII.19,20,21).

Markosen Ebangelioan. VI.3: “Hau ez al da arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia?” (Ikusi Mateo XIII.55).

Lukasen Ebangelioan. I,26,27,29,30,34,38,39,41,43,46,56: “...Gabriel aingerua bidali zuen Jaungoikoak...birjina batengana...eta Maria zuen izena...Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean...Ez izan beldurrik, Maria...Baina Mariak orduan aingeruari: Nola daiteke hori?...Mariak orduan: Hona hemen ni, Jau-naren mirabea...Maria Jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen...Isabelek Mariaren agurra entzun zuen orduko...orduan Mariak esan zuen: handiesten du nire arimak Jauna...Hiru hilabete inguru egon zen Maria Isabelekin...”; II,4,5,6,16,19,22,33,34,35,41,43,48,49,50,51: “Jose...Judeara igo zen...emazte Maria haurdunarekin...egunak bete zitzaizkion Mariari...eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose, eta haurra...Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza guzti hauek...Mariarentzat...garbikundeko egunak bete zirenean...Simeonek...haurraren ama Mariari esan zion:...asko erortzeko...ipinia dago...eta zero-rrri ezpata batek alde zulatuko dizu arima...Jesusen gurasoak Jerusalemaren josten ziren urtero...Jesus...Jerusalenen gelditu zen, bere gurasoek ez zekitelarik...Amak honela esan zion: ...zergatik egin diguzu hori?...Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten...Haiek, ordea, ez zuten ulertu...Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza guzti hauek”.

Joanesen Ebangelioan. II.1,3,4,5,12: “...ezteiak ziren Galileako Kanan eta Jesusen ama han gertatu zen. Ardoa ahitu zen, eta honela esan zion Jesusi bere amak: Ez daukate ardorik. Eta Jesusek erantzun: eta guri zer axola zaigu, emakume?...Orduan amak morroiei: Egizue, Berak esaten dizuen...Ondoren Kafarnauna jaitsi zen eta Harekin bere ama...”. IX.26,27: “Jesusek bere ama ikustean...honela esan zion amari: Andrea, horra hor zure semea!. Eta gero ikasleari: Horra hor zure ama!”.

Apostoluen eginak. I.14: “...otoitzari emanak zeuden, emakume batzuekin, Jesusen ama Maria ere bai, besteen artean, eta Haren senideekin”.

Harritzekoa zaigu Maria ez agertzea sinoptikoen azken kapituluetan, atxiloteta, heriotza, heorzketa eta berpizkundeko kapituluetan hain zuzen ere. Harritzekoa daiteke ere Markos eta Joanesen ebangelioetan deikunde eta jaiotzearen kapituluak ez agertzea. San Pauloren idazkietan ez da Mariaren aipamen zehatzik egiten, oker ez banabil.

Mariologiaren zimenduak

Hauexek dira Mariarenganako sinesmenaren zimendu bakarrak? Nola eutsi dezakete Mariologiaren eraikuntza itzela?. Erantzun zehatz eta laburra eman daiteke: Idazki Santuetan baino gehiago Mariologiaren zimenduak tradiziopean izkutatzen dira. Bi fasetan eraiki du Elizak Mariologia ofizialaren dorrea: bata lehen egunetatik M. Luther-en erreformara arte; eta bestea Luther-en erreformatik 1.964.urtera arte. Lehena mantso ibili bazen, bigarrena, erreformaren nahi murrizgarriaren aurkako erreakzio bezala, askoz lasterrago ibili da.

Tradizioa

Idazkietan agertzen ez dena tradizioak ipini du, Mariaren irudia edukinaz bete arte. II mendean Arabiako talde batek (Koliridianak) Maria gurtzen du Jaungoikoa bezala. Antiokiako Inaziok, Justinok eta Liongo Ireneok garrantzi handiko betebeharra ematen diote Mariari Salbapenaren historian. Mariak gizakia berriztatzen du Kristorentzat, Ireneok dioen bezala. Orban gabeko bildotsa da, Sardeseko Melitonentzat. Nizea eta Konstantinopolis-eko kontzilioentzat (325, 381) “et incarnatus est de Spiritu Santo ex Maria Virgine”. Graziaz betea, Efesoko kontzilioak Theotokos, Jaungoikoaren Ama egiten du eta hala gurtu. Hona heltzeko bidea prestatzean izugarrizko lana egin zuten Milango Ambrosio, Nizeako Gregorio, Nazianzoko Gregorio, Hiponako Agustin, edo Jeronimo bezalako “aita” handiek, beste askoren artean. Mariologiaren eraikuntza ez zen Erdi Aroan gelditu.

1.555. urtean Paulo IVk Mariaren betiko birjinitatea aldarrikatu zuen (Cum quorundam hominum), baina ez zion deusik gehitzen Tradizioari, Elizaren sinismen sendoa onartzen eta aldarrikatzen zuen (Letran-go Kontzilioa, 469 urtekoa). Gauza bera erran daiteke Mariaren Orbaingabeko Sortzeari buruz eta, hau ulertzeko, Duns Scotus-en idazkietara joatea besterik ez da behar. Pio IXk 1.854. urtean definitu zuenean, Elizaren sinismen zaharra eguneratu zuen, besterik ez, kristautasunaren lehen urteetatik Maria, bere sortzeko lehen momentutik “kejaritomene”, graziaz betea baitzen. Euskarri txikiagoa izan dezake Tradizioan Jasokundearen dogmak, Pio XIk aldarrikatua 1.950. urtean, baina beti, Mariaren heriotza aipatu beharrean, “dormitio” formula erabili zuen Elizaren sinismenak eta hala geratu da ere ikonografia ezagutuan.

Mariaren izena

Erran dugunez, Mariaren izena behin batez agertzen da Itun Zaharrean, Maria Moisesen arrebarrena (Ex. 15.20) bakarrik, oker ez banago. Nahiz eta izenaren jatorri asko proposatu izan den, baliteke benetako jatorria **rw*m erroan egotea. Ugarit-en *mrym* hitza ageri da, *miryamu* eta *maryamu* ahoska daitekena eta ‘goratua’, ‘goikoa’ esanahia duena. Jesusen garaian juduek ara-

mearraz hitzegiten zuten eta izenari *'andrea'* esanahia ematen zioten; hori dela eta, emakume askori izena jarri zioten: Herodes-en etxean Mariamme izeneko emakume bat baino gehiago ezagutzen dugu eta Itun Berrian bertan, Jesusen amaren izenaz gain, Betaniako Maria, Magdalako Maria, Kleofas-en Maria eta Jakob-en ama Maria aipatzen dira.

Herriak eraturako irudia

Idazki Santuen irudi apal eta zirriborratutik oraingo Mariologiaren irudi ezin aberatsagoraino oso bide luzea ibili da. Irudi hori edukiz bete da Elizaren historian zehar. Baina erlijioaren mundua garai bakoitzeko kulturaren arabera eraikitzen da, eta kristautasuna Mediterraneoko giltza kulturali estekatua da azken bi milurtekoetan. Mediterraneoko herri nekazari eta abeltzainak Jainkotasunaren alde emea gurtzera oso emanak ziren. Esandako emetasunean sorkunde, ugaltzen eta emankortasunaren emaitzak zeuden. Jaungoiko kristauaren konzeptutik jainkosen ematasuna uxatzeak herri hauei oso larrialdi estua ekarri zien. Teodosiok inposaturako erlijio berriak, 391. urtetik batez ere, oso hutsune nabarmena uzten du. Hutsune hori kristautasunaren emakume garrantzizko bakarrak beteko du, eta Jesusen ama jainkosa eta jainkosa bakar bihurtuko da. Ama Handi berriak mugarik gabeko ahala erakutsiko du. Idazki kanonikoek jainkosen aiurria emango diote, ikonografiak Ama Handien irudiz irudikatuko du. Amandre zaharren ahal eta tituloen oinordekoa Ama Handi berria da, Maria.

Imperioaren botere-egituraren irudia den erlijio maskulinoaren aurrean, Inperioko buruzagiak bezain urruna den Jaungoikoaren aurrean, Amandre ahalguztiduna, errukaria, hurbila, seme-alaben kezka ezagutzeko eta arintzeko emana sortzen da. Inperioko egitura unibertsalak Maria Amandre bakarra izan dadila egin du. Amandre berria bihotzez maitatzeko ama eta alaitasunez gurtzeko jainkosa emankorra da.

Goazen atzeruntz

Maria gurtzean Mediterraneoko Ama Handi guztiak gurtzen ditugu. Haien ahal, titulu eta irudi guztiak Mariarengan daude, bera oinordeko bakarra da. Mediterraneoko Amak, beren aldetik, aurreko egoeraren oinordekoak ziren, hondorapen baten aztarnak, egipziar, semitar eta indoeuropar uholdeek, besteen artean, Mediterraneoko kultura hondoratu zuten. Kultura honetan Ama Andrea izango zen erregina, antzinako numen eme baten oinordekoa bera ere. Numen hori Mari (izenekoa garrantzi gutxiakoa da) izango zen?. Hala balitz, Marirengandik Mariarengana joango ginateke zuzen eta, alderantziz, Mariarengandik Marirengana ere. Maria, Amandrerik berriena gurtzean, Mari, Amandrerik zaharrena gurtuko genuke.

Otoitza

Itzul itzazu gureganuntz, Andre, zeure begi errukariak,
monstra te esse M A T R E M.

BIBLIOGRAFIA

- BARANDIARÁN, J. M.,
 1972 *La religion des anciens Basques*. Obras completas Tomo I. LGEV. Bilbao. *Mari, o el Genio de las montañas*. Un personaje de la mitología vasca.
 Obras completas Tomo I.
Contribución al estudio de la mitología vasca. Obras completas Tomo I.
Euskal-Mitologiaren Ikaspiderako. Obras Completas Tomo I.
Mitología Vasca. Obras completas Tomo I.
Diccionario ilustrado de Mitología Vasca. Obras completas Tomo I.
 1973 *Mitología del Pueblo Vasco II. Las piedras y los monumentos prehistóricos*.
 Obras completas Tomo II.
Ele zaar (Fragmentos de Mitología Vasca). Herensuge. Obras completas. Tomo II.
Resumen de la mitología mariana. Obras completas Tomo II.
Notas liminares. Temas de Eusko-Folklore. Obras completas Tomo III.
 1974 *Eusko-Mitología*. Obras completas Tomo V.
Les cavernes et la maison dans la mythologie basque. Obras completas Tomo V.
Sobre las antiguas religiones de los vascos. Obras completas Tomo V.
Cuevas y simas en las creencias y mitos del Pueblo Vasco. Obras completas Tomo VI
 1990 *Temas mitológicos vascos cuyo origen puede situarse entre el Neolítico Final y el período del Bronce (Posibles relaciones)*. Anuario de Eusko Folklore. Bilbao.
Biblia de Jerusalén. Desclée de Brouwer. Bilbao
 BOVER, J. M., 1946. *Teología de San Pablo*. BAC. Madrid
Catecismo de la Iglesia Católica, 1992. Asociación de Editores del Catecismo. Madrid.
 FERNÁNDEZ, P., 1997. *El mundo griego (Hasta la segunda mitad del siglo IV a. C.)* UNED. Madrid.
 GÓMEZ-ACEBO, I., 1999. *María Mujer Mediterránea*. Desclée de Brouwer
 GONZÁLEZ-CARVAJAL, L., 1984. *Esta es nuestra Fe. Teología para universitarios*. 12 Edición. Sal Terrae. Santander.
 GUERBER, H. A., 1995. *Grecia y Roma*. M.E. Editores. Madrid.
 HAAG, H., BORN, A. VAN DEN, Ausejo, S de, 1987. *Diccionario de la Biblia*. Herder. Barcelona.
 HUARTE, J., 1998. "Aralarko Mikel Aingeruari gurtzea. Mitologia erkatuaren saioa. *CEEN*. Gobierno de Navarra. Departamento de Educación. Pamplona.
 -, J. (2004). *Euskara eta amerindiar hizkuntzak*. Oraindik argitaratu gabe. *Itun Berria*. Euskalherriko Elizbarrutietako Gotzaiak. Iruñea.
 JUNKER, H., 1960. *La religion de los Egipcios*. Cristo y la Religiones de la Tierra. BAC. Madrid.
 MANTEROLA, A., ARREGI, G., 2.003. *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiarán 1889-1991*. Fundación José Miguel de Barandiarán Fundazioa. Bilbao
 MARTÍNEZ, J. A., 2002. *El Rosario de Juan Plablo II*. Edibelsa. Madrid.
 PAREDES, J., 1998. *Diccionario de los Papas y los Concilios*. Ariel Referencia. Barcelona.
 POZO, C., 1975. *El Credo del Pueblo de Dios*. BAC. Madrid.
 ROSE, H. J., 1973. *Mitología Griega*. 2 Edición. Labor. Barcelona.
 SCHNEIDER, N., 1960. *La religión de los Sumerios y Acadios*. Cristo y las Religiones de La Tierra. BAC. Madrid.
 VÁZQUEZ, A. M., *Historia Antigua Universal. Próximo Oriente y Egipto*. 2 tomos. 2 Edición. UNED. Madrid.

RESUMEN

Un mito antiguo, el mito de Mari, nos sitúa en los albores de la historia de nuestra cultura. Es el soporte del culto al principio femenino de la vida y ha sido común a muchos pueblos antiguos. El mito ha ido evolucionando a lo largo de la historia y, aunque sumergido al final del Neolítico en un mar de deidades masculinas, soporte del culto al principio masculino de la vida, surge con fuerza en todo el Mediterraneo, desde el Tigris hasta Finisterre, en forma de diosas representantes del antiguo mito. La Virgen María, nuestra madre, ha recibido en herencia un legado que la convierte en la cúspide de la nueva religión extendida hoy a todos los continentes. En ella, la imagen adusta de tantos dioses lejanos e innombrables se convierte en algo cercano, amable, humano, que representa la parte más fácilmente aceptable de nuestra religión.

ABSTRACT

An ancient myth, the myth of Mari locates us at the beginning of our culture's history. It represents the foundations of life's feminine principle worship, and has been common to many ancient people. The myth has been developing throughout the history and, although submerged at the end of neolithic era in a sea of deities that represents the foundations of life's male principle worship, it arises with intensity all over the Mediterranean sea at the end of neolithic era, from Tigris river to Finisterre, in the shape of different goddesses representatives of the ancient myth. The Virgin Maria has received as inheritance a legacy which turns her on the summit of the new religion, in present days widespread all over the world. In her the distant image of many distant and nonmentioning deities turns into something kind, human and nearly that represents the most easily acceptable part of our religion.